



# e-kin prozesua

Jarraian, e-kin proiektuaren prozesuaren garapena partekatuko da, bere aurkezpenetik hasita, topaketen ondorioetara arte, baita jarraipena emateko etorkizuneko aukerak ere.

# Aurkibidea

<b>AURREKARIAK</b>	<b>2</b>
Helburuak	2
Prozesua	3
<b>1. TOPAKETA</b>	<b>6</b>
Helburuak eta parte-hartzaileak	6
Edukiak eta metodologia	7
Ondorioak eta hurrengo urratsak	10
<b>ONLINE ITZULPENA</b>	<b>13</b>
Helburuak eta parte-hartzaileak	13
Edukiak eta metodologia	14
Ondorioak eta hurrengo urratsak	14
<b>2. TOPAKETA</b>	<b>16</b>
Helburuak eta parte-hartzaileak	16
Edukiak eta metodologia	17
Ondorioak eta hurrengo urratsak	23
<b>JARRAIPENA</b>	<b>24</b>
Hurrengo urratsak	25
Saretze espazioak	26
Parte-hartzea	30

# AURREKARIAK



## Helburuak

**E-kin, diseinua ahizpatasunez, [Mundo Ivaginariok](#) (Zirikatuz Feminista Taldea) eta [Wikitokik](#) sustatutako proiektua da, euskal lurraldeetan arkitektura eta diseinuaren arloan dauden emakumeen komunitate bat sortzeko.** Proiektu honen helburua arkitektura, hirigintza eta diseinuaren sektoreak eraldatzeko elkar-zaintza eta elkar-laguntza sareak osatzea da, parekideagoak eta feministagoak izan daitezen.

## Helburu nagusia

**Diseinuaren eta arkitekturaren sektorean dauden emakumeen komunitatea sortzea,** sektore horietan **dinamikak feministagoak** izan daitezen.

## Helburu zehatzak

- Bizkaian diseinuarekin, arkitekturarekin eta generoarekin lotura duten pertsonak, entitateak eta erakundeak **mapatzea**.
- Diseinuarekin, arkitekturarekin eta generoarekin lotura duten edo horietan interesa duten **pertsonak eta entitateak elkartzea**.
- Diseinuaren, arkitekturaren eta hirigintzaren arloetan **emakumea profesional gisa duen egoerarekin** lotura duen **informazioa, arazoak eta usteak ezagutzea eta partekatzea**.
- **Ekintza-arloak antzematea** sektoreko dinamika patriarkalak eraldatzeko.
- **Balore feministak** dituen eta emakumeek egindako diseinuaren inguruan kolektiboki hausnartzea.

- Diseinuaren eta arkitekturaren emakumeen **komunitate** koordinatua sortzeko **hurrengo urratsak zehaztea**: elkarte bat sortzeko aukera, hurrengo proiektuak edo abian dauden topaketak.

## Prozesua



## Talde-eragilearen sorrera

2022. urtearen hasieran, Wikitokiko zenbait kide elkartu ginen proiektu hau garatzeko, finantzazioa bilatzeko eta gauzatzeko asmoarekin. Ondorengo pertsonen osatuta dagoen talde-eragilea sortu genuen:

- **Isabel Tomás**, Mundo Ivaginario-ko kidea eta Wikitoki-ko host-a.
- **Izaskun Soto**, Hiritik At-eko kidea.
- **Thais Ibarrodo**, cAnicca-ko kidea.
- **Leire García**, ColaBoraBora-ko kidea.
- **Uxue Pérez de Pipaon**, Pezestudio-ko kidea.
- **Elisa de los Reyes García**, Pezestudio-ko kidea.
- **Lorna Biermann**, Wikitoki-ko kidea.

## Finantzazioa bilatzea

Horrela, **Mundo Ivaginario**ren eskutik, **Bizkaiko Foru Aldundiko** eta **Emakundeko** bi deialditara aurkeztu ginen eta bien laguntza jaso genuen.


## Parte-hartzaileen deialdia

Topaketak hasi baino lehen, **parte-hartzaileen zundaketa** egin genuen. Zundaketan interesen eta lan-arloen inguruko datuak jaso genituen. Datu horiek zer pentsatu eman ziguten eta topaketak antolatzeko sargai izan ziren. [62 erantzunen analisia](#).

**Profil aniztasuna** funtsezkoa da e-kin-entzat. Lehenengo fasean, diseinuaren eta arkitekturaren aldaera guztiei heldu zitzairen, ikuspuntu eta errealitate ezberdinei atea irekiz.

Zundaketa horretan, gure harreman-sareen bidez, honako profiletara heldu ginen:

Diseinuaren zein esparrutan parte hartzen duzu?



Batez ere Arkitektura eta hirigintza, Diseinua, Ilustrazioa eta Diziplina anitzak. Gainera, beste profil teknologikoago batzuk gehitu ziren, hala nola, Interiorismoa, Publizitatea, Ikusmen-bitartekaritza pedagogikoa, Paisaia, Animazioa, etab.

## Lan-topaketak

**Urrian eta azaroan** bi topaketa burutu ziren, zeinetan **balore feministak dituen eta emakumeek egindako diseinuaren inguruan elkarrekin hausnartu genuen**. Aurrez aurre burutu ziren [BBK Kuna](#) eta [Wikitoki](#) espazioetan, **Bilboko** Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoetan daudenak. Bestalde, tartean **online** topaketa bat egin genuen **deboluzio** bat egiteko. Horrela aukera izan genuen aurreko topaketara gerturatzeko aukera izan ez zuten pertsonekin prozesua partekatzeke; eta aldi berean, parte-hartzea erraztu genuen.

# 1. TOPAKETA



## ERLAZIONATZEA. Mapaketa eta desberdintasunak.

2022ko urriak 27, BBK Kunan.

### Helburuak eta parte-hartzaileak

Lehenengo topaketan, zenbait helburu nagusi **prozesua sozializatzera** eta **parte-hartzaileen arteko onarpenera** lotuta egon ziren; beraz, funtsezko unea izan zen talde-eragiletik kanpo zeuden pertsonen prozesuaren planteamendua nola jasotzen zuten ikusteko.

Gainera, e-kin-ek lantzen duen gai nagusira, guztiok partekatzen dugun eta deitzen gaituenera, gerturatzeko, **diseinuaren edo arkitekturaren profesional gisa, emakumearen egoera ezagutzean** enfokatu ginen, bizipenak, ikuspuntuak eta usteak partekatzeko; beraz, gaitzak eta beharrak antzematen hasi ginen.

**Parte-hartzailei** dagokionez, deialdi zabalaren eta interes handiaren ostean, kontziliazioaren errealitateak, deslokalizazioak eta agenden pisuak bertaratutako pertsona kopurua murriztu zuten. Hala ere, taldearen tamaina interesgarria izan zen gertutasun handiagoz kontuei heltzeko; gainera, **konfiantzazko giro eroso**a eskaini zuen, parte-hartzaile guztiek nabarmendu zutena.

Era berean, **profilen aniztasuna** interesgarria izan zen ere:



Arkitektura eta hirigintza izan ziren profil nabarmenenak, beharbada egindako deialdia zela eta.

## Edukiak eta metodologia

Proiektuaren planteamendua partekatu ondoren, topaketarako proposamena bi atal izan zituen: lehenengoa ikuskapenera zuzenduta eta bigarrena, nagusia, taldekako elkarrizketetan eta ondorengo bateratze-lanean zatituta. Azkenik, topaketa amaitzeko, hurrengo urratsak eta usteak partekatu ziren.



## Speed dating



Topaketaren zati handia erabili gabe eta modu azkarragoan zein dibertigarriagoan elkar ezagutzeko aukera izateko, "speed dating" bat antolatu genuen, zeinean bikote bakoitzak bi minutu izan zituen bata besteari nor ziren kontatzeko. Gainera, parte-hartzaile bakoitzari pasaporte eta zigilu bat banatu genizkion, euren elkarrizketa gorde zezaten eta kontaktuak partekatzeko.

## World kafea



Topaketaren atal nagusia elkarrizketan eta iritziak elkar trukatzean oinarritu zen. Horretarako, 4-5 pertsonako 4 mahai eratu genituen, aldiro mahaiz aldatu behar zuten profilak, ekarpenak... nahas zitezten aurrezarritako modu batean aniztasuna mantentzeko. Elkarrizketa galdera honen inguruan ardaztu zen:

***Zer-nolako desberdintasunak antzematen dituzu sektorean emakumea izateagatik?***

Lehenengo mahaian, galdera esploratu zuten eta lehenengo ekarpenak egin zituzten, txarteletan idatzi zituztenak. Mahaiko pertsona batek ekarpen horiek jaso eta igorri behar zituen, mahai berean mantentzen zen beti eta gainerako kideak jasotzen zituen.

Bigarren txandan, mahaiz aldatu ostean, aurreko taldearen ekarpenak irakurtzen zituzten eta euren ekarpenak egiten zituzten aurretik mintzatutakoari gehitzeko.


Azkenik, hirugarren txanda bat egin zen, zeinean desparekotasunak zehaztu eta bateratu ziren eta funtsezkoenak nabarmendu ziren, bateratze-lanean partekatuko zirenak.



## Bateratzea



Berriz talde bakarreen geundela, elkarrizketen hausnarketa esanguratsuenak partekatu genituen eta gainerako taldeen ñabardurak eta ekarpenak gehitu genizkien. Horrela, elkarrekin mapa bat osatu genuen, zeinean landutakoa gaien arabera taldekatu genuen eta talde-elkarrizketaren kutsu berriak hartu genituen:



## Errelatoretzak grafikoak



Topaketa osoan zehar, gure kide den Josune Urrutiak irudi-erregistroa egin zuen, zeinean elkarrizketaren uneak eta ekarpenak jaso zituen, topaketaren gakoaren laburpen irudidun gisa.

[Errelatoretzak grafikoaren esteka.](#)

# Ondorioak eta hurrengo urratsak

Topaketaren ostean, modu informalean zein formalean, topaketari buruzko iritziak jaso genituen online galdetegi baten bidez.

Itxaropenak neurri handian bete ziren, sektorean ardazteko zailtasuna kontuan hartuta.

Nabarmentzekoak izan ziren alderdi erlazionala eta egondako giro ona.


Erosotasunezko eta konfiantzazko sentipen orokorra egon zen eta aukera izan zuten euren iritziak, interesak, ideiak, etab. adierazteko. Guretzat funtsezko aspektua zen hori.

## Ekarpenak

**Zer-nolako desparekotasunak antzematen dituzu sektorean emakumea izateagatik?**, topaketaren funtsezko galderaren inguruko ekarpen guztiak jaso ziren eta horiek “txukun idaztea” erabaki genuen [MIRO](#) plataforman, guztiok ikusteko eta partekatzeko gai izatez gain, ekarpenak egiteko aukera egon dadin, edukia hornitzen jarraitu ahal izateko:



Era berean, [hausnarketa](#) bat egin genuen egon zitezkeen gai-multzoen eta elkarrizketako gai nabarmenen inguruan:



## ● EMOZIOAK

- Emozioak kudeatzea
  - Perfekzioa
  - Autoexijentzia
  - Segurtasun-gabeziak
  - Euspenetik aritzen gara

## ● AHALDUNTZEA

- Botere posizioak
- ~~Ahultasuna~~ → Sendotasuna
- Taldekoa
  - Banakako lana
  - Boterea ≠ Segurtasuna
  - Espazio seguruak

#### ● ERREKONNOZIMENDUA

- Dirua
- Auto-onarpena
- Erreferente gabezia
- Erabakiak hartzea
- Ikusezin bihurtzea / Txikiagotzea
- Dedikazio handia
  - Errepikatzen ditugun jarrerak
  - "Enpleguak duin bihurtzen zaitu" ✗
  - Gizonak agerian // Emakumeak ezkutuan

#### ● DISKRIMINAZIOA

- Egunerokotasunean hasten da
- Sektoreak maskulinizatzea
- Gizonetan balioesten diren jarrerak → Emakumeetan gaitzesten dira
- + Etorkina izatea
- + Gaztea izatea
- Jazarpena
  - Iruzkin sexistak

#### ● ZAINZA LANAK

- ~~Pribilegioak~~ → Erantzukizuna
  - Amatasuna
  - + Pertsona nagusiak

Diagrama hori funtsezko arazora lehenengo hurbilpen gisa hartuz, aukera izan dezakegu arazoan sakontzeko, marrazkia hornitzeko eta etorkizunean zer-nolako lan-ildo zehatzago har genezakeen ikusteko.

Deboluzio bisualago gisa eta komunikazio-material gisa, [bideo](#) bat prestatu genuen.

# ONLINE ITZULPENA



AZAROAREN 10EAN 11: 00ETATIK 12:00ETARA - ZOOM ONLINE  
+ INFO: [EKIN.SORORIDAD@GMAIL.COM](mailto:EKIN.SORORIDAD@GMAIL.COM)

*Ekin*  
diseño con sororidad

1. Itzulpena:  
ERLAZIONATZEA.  
Mapaketa eta  
desberdintasunak

Online eta irekia.

Feedback 1:  
LO RELACIONAL.  
Mapeo y desigualdades

Online y abierto.

## 1. Feedback-a: ERLAZIONATZEA. Mapaketa eta desberdintasunak.


**2022ko azaroaren 10ean, online.**

### Helburuak eta parte-hartzaileak

Topaketak independenteak izan zitezen antolatu ziren, baina aurreko prozesua eta elkarrizketak ezagutzeak testuinguru nabarmena sortu zuen prozesuari jarraitasuna eta bizkortasuna emateko. Gainera, interesa adierazi zuten pertsona ugari ez zuten aukera izan lehenengo topaketara joateko kontziliazio, ordutegi, mugikortasun... kontuak zirela eta. Hala ere, prozesuaren berri izatea eskatu zuten; beraz, deboluzio bat egin nahi izan genuen eta, aldi berean, parte-hartzea erraztu genuen; beraz, online formatua eskaini genuen eta ordutegia aldatu genuen.

Online topaketaren zuzeneko parte-hartzea espero baino txikiagoa izan zen, baina grabatu eta Youtube-ra igo genuenez, bistaratze gehiago egon ziren (53 bistaratze) eta ikusgai dago oraindik lehenengo topaketaren kontestualizazio eta laburpen gisa.

## Edukiak eta metodologia



1. topaketan gertatutako erakusteaz gain, bertaratutakoak parte-hartzeko aukera izatea nahi genuen. Beraz, topaketa bi atal hauetan banatu zen:

- Lehenengo atalean, prozesua eta lehenengo topaketa azaldu ziren.
- Lehenengo topaketan jasotako ekarpenetatik abiatuta egindako hausnarketa partekatzea ("Zer-nolako desparekotasunak antzematen dituzu sektorean emakumea izateagatik?" galderaren inguruko diagrama).
- Eta prozesua baloratzeko kontsulta azkarra, Mentimeter plataforma interaktiboaren bidez.

## Ondorioak eta hurrengo urratsak

Kasu honetan, topaketa informazioa emateko izan zen batez ere. Ekarpenak **Mentimeterren** bidez igorritako galderen bidez eman ziren, gehienbat. Era berean, [Miron](#) jasota geratu dena.

Berrartu beharreko hausnarketa batzuk nabarmendu ditugu:

- Ahal bezain anitza izatea edo profilen batean sakondu nahi dugu? Sektorialagoa izatea nahi dugu? Zertarako?
- Hona barruan har litezkeen zenbait profil proposamen: Administrazioak, ikasleak eta irakasleak, artisauak, profesional helduagoak, etab.
- Sektoreko langileen eta enpresarien/ekintzaileen arteko ikuspegiak? Ahizpatasuna al dago? Zer-nolako ikuspegia dago posizio bakoitzean?

Baita zenbait ekarpen edo proposamen ere:

- Geure diziplinetatik eta ekoizpenetatik aztertzea, bai diagnosi gisa bai geure eskumen-esferetatik ekintza-proposamenak sorrarazteko.
- Aukera izatea zenbait egoera kudeatzearen inguruko esperientziak partekatzeko eta elkar laguntzeko, tresnak partekatuz.
- Gure jardueraren zein esparrutan/unetan diskriminazioa dagoen ulertzea ekintza-eskema gisa.

- Emakume-taldeetan sektoreka aritzea aurretik antzeman diren gaien inguruan. Egungo egoera eraldatzeko moduak pentsatzea antzemandakotik abiatuta.
- Igaro behar ez ditugun lerro gorriak ezartzea? Bertatik partekatu nahi ditugun balio partekatuak sor al daitezke?

Bertaratzeko aukera izan ez zuten horiek honako [bideoa](#) ikus dezakete.

## 2. TOPAKETA

23 DE NOVIEMBRE DE 17:00 A 19:30 - WIKITOKI - BILBAO

**Abordaje**  
Experiencias  
y valores  
compartidos

**Ekitea**  
Esperientziak eta  
partekatutako  
balioak

*Ekin*  
diseño con sororidad

### **EKITEA. Esperientziak eta partekatutako balioak.**

**2022ko azaroaren 23an, Wikitokin.**

### **Helburuak eta parte-hartzaileak**

Gure usteak partekatu eta sektorean gaitzak eta beharrak antzeman ondoren, partekatutako balioak batzeko eta e-kin-en motibazioan eta helburuan aritzeko beharra ikusi genuen. Zer nahi dugu e-kin izatea? Nortzuk gara honen parte? Zein da helburua? Horretarako, definizio bateratua egiteko eta behar, oztopo eta helburu zehatzak antzemateko bideratu ginen ondorengo urratsei hel geniezaien.

Parte-hartzeari dagokionean, lehenengo topaketako parte-hartzaile ugarik ez zuten aukera izan bigarrenaren errepikatzeko agenda edo zaintza lanak zirela eta. Hala ere, aurpegi berri eta profil berri asko bertaratu ziren, ikuspegi eta ikuspuntu berriak gehitu zituztenak.



<b>Arkitektura eta hirigintza /</b> Arquitectura y urbanismo	██
<b>Diseinua /</b> Diseño	████████████████
<b>Diseinua eta teknologiak /</b> Diseño y tecnologías	████████████████
<b>Ilustrazioa gizarte-komunikazioa</b> <b>bitartekotza didaktikoa /</b> Ilustración, comunicación social y mediación didáctica	████████████████
<b>Diseinua eta publizitatea</b> Diseño y publicidad	████
<b>Ikus-entzunezkoa, komunikazioa/</b> Audiovisuales, comunicación	████

Gainera, erakunde batzuk hurbildu ziren (Beaz y EmakumeEkin), benetan interesgarria izan zena beste errealitate eta ekimen batzuk kontuan hartzeko.

## Edukiak eta metodologia

Saioarekin hasteko, planteamendua eta e-kin-en lehenengo saioa gogorarazi genituen, parte-hartzaile berriek testuingurua izan zezaten. Ondoren, saioak bi atal nagusi izan zituen: Lehenengoa e-kin-en helburua elkarrekin zehaztean ardaztu zen, eta bigarrena, xede hori bultzatzeko helburuetan, beharretan eta oztopoetan.

Amaitzeko, unera arte egitaratuta zegoen bigarren eta azken topaketa izanda, geure asmoa izan zen itxiera prozesua jarraitzeko lehenengo urrats gisa bideratzea; nolabait, jarraipen hori abian jartzeko urrats txikiak planteatzea.



## Sareak eratzen



Topaketaren hasieran, modu azkarrean baita metaforikoan, elkarren artean ezagutzeko ere, artilezko haril bat pasatu genion bata besteari. Harila zuenak laburki aurkeztu behar zuen bere burua (izena, lanbidea eta nola heltzen zen topaketara) eta beste pertsona bati bota; horrela, batzen gintuen sare kolektiboa eratu genuen.

## Xedea



E-kin Wikitokiko interesetik sortu zen, eta bertatik planteatzen hasi zen proiektuari nolabaiteko euskarria eskaintzeko, planteatzeko eta irekitzeko. Baina, e-kin bertan parte hartu duten eta parte har dezaketen pertsonen interesaz zein errealitateaz arduratu behar da; beraz, e-kin-en helburu nagusia birformulatu nahi izan genuen bertaratu zirenekin batera.

Horretarako, taldea 3 mahaitan banatu genuen. Mahai bakoitzean e-kin-en helburua definitzen zuen esaldia sortu behar izan zuten ondorengo egitura komunean oinarrituta, eta zer, norentzat eta zertarako galderei erantzuten:


**"e-kin \_\_\_\_\_ da  
\_\_\_\_\_ (e)z osatuta dagoena  
\_\_\_\_\_ helburua duena."**

Hona hiru taldeen esaldiak:

- “e-kin emakumez osatutako komunitate aliatua (segurua eta konfiantzazkoa) da, gu laguntzeko eta jarduteko beste modu batzuk azalarazteko helburua duena.”
- “e-kin sortzaileez eratutako sarea da, gure lanbideen eraldaketa feministaren buru izateko helburua duena”.
- “e-kin emakume sortzailez osatutako sarea da, laguntza emateko helburua duena (laguntzak behar bati erantzun behar dio)”.

Taldeka egindako ekintzaren ondoren, definizioetara heldu arte egindako hausnarketak partekatu genituen eta definizio bateratua eta adostua lortzen saiatu ginen, jakinda behin-betikoa ez zela; ordea, hurbilketa nahiko interesgarria izan zen, eta horren bidez eraiki eta beste kontu batzuk zehaztu eta bir-zehazteko abagunea da.

**“e-kin diseinatzaileen komunitatea da elkarren artean laguntzeko eta gure lanbideak feminismotik aldatzeko asmoa duena.**




## Helburuak / Oztopoak / Beharrak



Xedea ardatz hartuta, e-kin-en estrategia gehiago xehatu nahi izan genuen; beraz, helburu, oztopo eta behar nagusiak lurreratzeko ahalegina egin genuen.

Taldeko lehenengo hausnarketa baten ondoren, 3 ekarpen lehenetsi ziren kategoria bakoitzeko (H, O, B), zeinak bateratze-lanean partekatu ziren eta marrazki kolektiboa egiteko erabili ziren:



Helburuak:

- Eraldatzea
- Laguntzea
- Salatzea (desparekotasun egoerak)
- Profesionalki elkarlanean aritzea
- Orokorrean laguntza ematea
- Esperientziak partekatzea
- Ikastea
- Ahalbidetzea
- Lan-baldintzak aldatzea\_Lan-zuzenbidea
- Laguntza-sarea eta bestelako lanaldiak
- Lidergoaren direktorioa eta prestakuntza

Beharrak:

- Topalekuak
- Egiteko modu berriak
- Alde emozionala zaintzea
- Ordezkapena lidergo-posiziotan
- Eragina izan maila goren batean > "señoros" > Nabarmena izatea > Salaketa!
- Helburu zehatzak eta motibatzaileak izatea

Oztopoak:

- Lana zaintzea
- Nork zaintzen du zaintzailea?
- Ikusezintasuna
- Kalitatezko denbora - Inplikazioa
- Hizkera - Hizkuntza
- Motibazio iraunkorra
- Lidergoa > Taldea sendotzea > Egitura
- Zehazteko beharra?

## Eragitea



Azkenik, topaketa amaitzeko, hurrengo urratsak begiztatu genituen, prozesuarekin aurrera jarraitzeko arduratzen eta eragiten gaituzten ekintza txikietan oinarritzen direnak.

Zer egin genezake e-kin-ekin jarraitzeko? Zerk du lehentasuna?

Zein da hurrengo urratsa topaketa honen ostean?

Hona zenbait ekarpen:

- Entzute eta salaketa postontzia sortzea → Postontzi hori diseinatzea
- Beste urrats bat eztabaidan → e-kin 3. topaketa
- e-kinen egitura zehaztu → X. topaketa
- Miro-ra sartzea → Profilak betetzea, kapitalak, denborak, dedikazioa... Zer gehitu, hartu,... dezakegu?
- Komunikazio-kanala sortzea

## Errelatoretzan grafikoa



Beste behin, Josune Urrutiaren erregistro grafiko paregabea izan genuen. Josunek topaketaren uneak eta ekarpenak jaso zituen laburpen irudidun gisa. [Errelatoretzan grafikoa](#)ren esteka.

## Ondorioak eta hurrengo urratsak

Elkarrizketetan sortu ziren eta neurri handiagoan edo txikiagoan jorratu genituen gai eta termino zehatzen inguruan zenbait hausnarketa eman ziren. Alde batetik, ondorengo funtsezko kontzeptuak adostu genituen:

- **“Diseinatzaileak”** adostutako termino gisa, zeinetan guztiok geure burua ikusten dugun (arkitektoak, hirigileak, ilustratzaileak,...)
- **“Komunitatea”** elkarrekiko onura partekatuen parte-hartze aktiboan batzen gaituen kontzeptu gisa.
- **“Elkar laguntzea”** elkarri eusteko, batera indartsuagoak izateko eta bidegabekeriei zenbait mailetan aurre egiteko.
- **“Eraldatzea”** bidegabekeriaren aurkako borrokan, kolektiboarentzat onuragarriagoak diren aldaketak eskaintzea, gure idealekin bat doan eraldaketa sustatzea.

Bestetik, hona oraindik hausnartu eta zehaztu behar diren zenbait gai:

- **“Emakumeak”**, nola izan gaitzke inklusiboak eta aldi berean genero honen kasuistika zehatzei heldu? Nor hartuko dugu eta nor baztertuko dugu?
- **“Feminismoak”**, feminismoaren zein alderdirekin bat gatoz edo lerrokatzen gara? Zein ildotara gehituko gara?

Gainera, burutu beharreko zenbait zeregin egiteke geratu ziren, heldu beharreko fronte handiak, ondorengo atalean prozesuaren jarraipen gisa jaso direnak.

# JARRAIPENA



E-kin epe luzerako proiektua da, eta, horretarako, planteamendu-lana eta bi topaketak garatu ditugu, alderatzeko eta komunitatea eraikitzen jarraitzeko ekarpenak biltzeko.

E-kin hornitzen jarraitzeko, bere egituraren eta edukiaren inguruan hausnartzen jarraitu behar dugu; ikusi beharko dugu nola nahas ditzakegun pertsona gehiago, zein izango den euren esku-hartzea eta erantzukizunen banaketa. Era berean, komunitatea eta parte-hartzea zenbait mailatan sustatzen duten ekintzak edukiz eta helburuz hornitu beharko ditugu.

Gainera, prozesuaren hasierako planteamenduan, zenbait helburu ezarri genituen zeinei heltzeko aukera izan ez dugun eta berreskuratuko ditugunak:

- **Diseinu/arkitektura feminista** denari eta zer dakarrenari buruz modu kolektiboan hausnartzea, **emakumeekin lotutako eta egindako proiektuetatik abiatuta.**
- **Diseinu feministarekin harremana duten** edo Euskal Herrian diseinua eta arkitekturaren arloetan feminismoaren eta berdintasunaren baitan eraldaketa sustatzen duten **ekintzak edo ideia posibleak partekatzea; pertsonak eta erakundeak saretzea** eta horrela etorkizuneko **garapena sustatzea.**
- Dauden proiektuak eta ekimenak **agerian jartzea.**



## Hurrengo urratsak

Bigarren topaketan jasotako ondorioetatik, abian jarri beharreko ondorengo ekintzak finkatu ziren, baita kontuan hartu beharreko zenbait hausnarketa eta xehetasun ere:

- Erantzun beharreko behar zehatza identifikatzea, norabidea adierazten diguten helburu zehatzekin batera. Betiere aldaketa eta eraldaketa sustatzeko jarrerarekin.  
Gizarte-aldaketen eragile izatea.
  - Laneko ordutegia eta kontziliazioa pisu handiko gaiak dira. Zailtasunak autonomoak izatean eta zaintza lanak 8 orduko jardunaldiarekin bateratzeko.
  - Salaketarako espazioa sortzea, zeinetik jardun, elkarriketak sustatu eta maila gorenetan eragina izan.
- Ez dugu zertan gabeziatik proposatu behar, ikusi nondik eraiki ahal dugun motibagarria izan dadin. Motibazioa funtsezkoa da komunitatearen parte-hartzea sustatzeko zailtasunari aurre egiteko eta jarraitasuna izateko.
- Komunitatea baliabideak partekatze eta dagoena ezagutzeko ere baliagarria izatea nahi dugu.
- Sarea ahalik eta zabalen nola egin genezake ikustea eta aldi berean komunitate gertua izatea. Komunitate batetik hastea, barruan zenbait komunitate izan lezakeen sare bihur daitekeena.
- Geure burua definitzeko beharra.
  - Geure burua "diseinatzaile" gisa izendatzea adostu genuen, antza, "arkitektoak" baztertzailergia da, baina zalantzak daude "sortzaileak" eta tankerako terminoen inguruan. Kontua izan liteke etorkizunean berdifinitzea komunitatea osatzen duten profil desberdinak ikustean.
  - Kontu bera "emakume" eta "feminismoak" terminoen inguruan. Zenbait modutan bizi eta ikusten dira, beraz, gutxieneko adostasuna eta ikuspegi partekatua behar dugu.

Zehazkiago, ondorengo urratsetan lantzeko zenbait konpromiso hartu genituen, besteak beste:

- Eraikitzen gauden Miro-ren fitxak guztiz betetzea.
- Komunikazio-kanala sortzea, Telegram talde batean gauzatuko dena.
- Entzute eta salaketa postontzia sortzea.
- E-kinen barne-eztabaidan aurrera egitea, 'e-kin, 3. Topaketa' bilatuz.
- Jaio den espazio seguru honetan elkar ezagutzen jarraitzea.

## Saretze espazioak

**Espazioak, harremanak egiteko, informazioa partekatzeko eta aurrerapenak jasotzeko** garrantzitsuak dira prozesuari jarraitasuna eta jarraipena emateko, baita pertsona berrien sarrera errazteko ere.

Horretarako, eta momentuz, ondorengo espazioak ditugu eskura:

### Webgunea

[Webgunea](#), gaur egun Wikitokiko domeinupean dagoena, proiektuari buruzko oinarriko informazioaren erreferentzia gune gisa pertsona interesdunak erakartzeko eta beste kanal batzuetara bideratzeko, adibidez, helbide elektronikora, informazioa eskuratu dezaten edo proiektuan inplikatzu daitezen.

Etorkizunean kontuan hartzeko moduko aukera izango litzateke “e-kin” bezala webgune propioa izatea. Horrek aukera emango liguke bere funtzionaltasuna garatzeko, informatzeko espazioa izateaz gain, eduki-biltegia izateko, langileen/eragileen edo beste gaitasun emergenteren bilatzaile gisa ere funtzionatzeko.

### Helbide elektronikoa

Helbidea elektronikoa ([ekin.sororidad@gmail.com](mailto:ekin.sororidad@gmail.com)) bidezko komunikazioa deialdiak egiteko bide nagusia izan da, prozesua ezagutzera emateko eta kontrastatzeko, eta, ondoren, topaketetara bertaratzeko.

Guretzat agerikoa da kanal hau mantentzea bide formal gisa, informazio-dentsitate handiagoa partekatzeko gaitasuna baitu.

### Sare Sozialak

Proiektua zabaltzea eta ezagutaraztea funtsezko atala da ere. Hauek dira bide irisgarrienak eta anitzenak proiektua ezagutzera emateko eta pertsona berriak erakartzeko.

Gaur egun, Wikitokiko sareen eta inplikazioa duten laguntzaileen edo banakakoen sareen bidez ondorengo espaziotan agertzen gara:

**Instagram:** [@wiki\\_toki](#) | Plataforma bisualak, gaur egun gehien erabiltzen dena eta agerikoena.


**Twitter:** [@wiki\\_toki](#) | Sare idatzia zenbait pertsona eta eragile lotzen dituen.

**Youtube:** [Wikitoki Elkarte](#) | Ikus-entzunezko edukia partekatzeko espazioa.

Asmoa da, noizbait badagokio, guztietan “e-kin” bezala espazio propioa izatea.

### Telegram

Komunikazio arinagoa, zuzenagoa eta hurbilagokoa lortzeko, [Telegram talde](#) bat sortzea proposatu zen, irekita egongo dena proiektuaren berri izan edo neurri handiagoan zein txikiagoan inplikazio aktiboa izan nahi duten pertsonentzat.



Tresna modu osasuntsuagoan erabiltzeko, ondorengo **adostasunak** proposatzen ditugu, alda daitezkeenak:

### Zertarako

- Abisua emateko ('berandu noa', 'mail bat bidali dizuet').
- Lotura duen informazio interesgarria partekatzeko.
- e-kin-en ildoekin harremana duten ekitaldien/taillerren berri emateko.
- Diseinuaren sektoreko lan-eskaintzetarako.

### Zertarako ez

- Gai delikatu edo konplexuak eztabaidatzeko. Askoz hobe aurrez aurreko topaketara itxarotea.
- Kontu garrantzitsuei buruzko erabakiak hartzeko.
- e-kin-en ildoekin harremana ez duten ekitaldien berri emateko.

### Kontuan hartu beharreko zenbait kontu

- Bakoitzak bere hitzaldia murriztea (ekologiagatik).
- Taldeari ez dagozkion elkarrizketak/iruzkinak ekiditea.
- Ezin da parte-hartze erregularra edo berehalako erantzuna espero. Baliteke gainerako pertsonak erantzuteko astia ez izatea mezu bat bidaltzen duzunean.
- Oso bestelako ohitura eta beharrak ditugu; beraz, Telegram bidez komunikatzeko ordutegia 08:00 eta 20:00 artean mugatu dugu.

## Miro

Azkenik, Miro, arbel interaktibo komun batean oinarritutako plataforma da, zeinetan pertsonak sar daitezkeen eta ekarpenak egin. [Miro-ra sartzeko esteka.](#)

Gaur egun zenbait atal ditu, oraindik elikatu daitezkeenak. Era berean, espazio berriak sor daitezke:


### Mapeo de agentes

Ane Larrinaga _ Pez...	Andrea Esteve_Apitr...	Leire García _ ColaB...	Uxue Perez de Pipa...	Lorna _ Wikitoki	Thais_canicca
Elisa de los Reyes_ ...	Nombre _ organizac...	Isabel Tomás Perez...	Izaskun Soto López_...	Izaskun Narbaiza_ ...	Izena _ erakundea
Miren Escartin_ME ...	Nombre _ organizac...	Nombre _ organizac...	Izena _ erakundea	Izena _ erakundea	Izena _ erakundea

Ezagutzera eman eta elkar-lotu daitezkeen langile-sarea mapatzen saiatzeko lehenengo hurbilpena da atal hau. Gainera, e-kin barruan bakoitzaren inplikazioa aukerak jasotzen dira.


**Lehenengo topaketaren ekarpenak**

Aportes colectivos



**Lehenengo topaketaren osteko hausnarketa**

Mapa reflexivo



## Online deboluzioaren ekarpenak

**Pregunta 1**

**Profilen bat faltan botaten dugu? Nola hurbildu gaitzke haiengana?**

**¿Echamos en falta algún perfil? ¿Cómo podemos llegar a ellos?**

Administración pública  
Administración pública, servicios administrativos  
Artesanos, artesas, artesana, artesano, diseñador/a  
Eskolargiak  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
También Desto y MU  
Niños y niñas  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a

**Pregunta 2**

**Zeozer iradokitzen al dizu guzti honek? Falta den zerbait ikusten al duzu? aipatu ez dena eta garrantzitsua iruditzen zaizuna?**

**¿Cómo te resuena todo esto? ¿Ves algo que falte, que no se haya comentado y te parezca un tema importante?**

Irteerak, irteerak, irteerak, irteerak, irteerak  
Creo se ha reaccido bien lo que se expuso.  
Interesante y relevante, pero me gustaría saber más sobre ello.  
Escribo lo que me ha parecido bien de lo que se ha expuesto.  
Interesante y relevante, pero me gustaría saber más sobre ello.  
Muy interesante y relevante, pero me gustaría saber más sobre ello.

**Pregunta 3**

**Orokortasunetan geratu ginen. Ba al dago gure sektoreko gauza zehatzetan bat nabarmendu dezakeguna? Nola bideratu dezakegu sektorerara?**

**Nos quedamos un poco en generalidades. ¿Hay algo en concreto sobre nuestro sector que destacar? ¿Cómo podemos ir entrando el foco en el sector?**

Compartir experiencias laborales.  
Buenas prácticas  
Si con alegría, no como víctimas  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a  
Diseñadores/as, diseñador/as, diseñador/a, diseñadora/a, diseñador/a, diseñadora/a

**Pregunta 4**

**Bigarren saiorako nahi edo espekatibaren bat**

**Expectativa/deseo para la segunda sesión**

Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.  
Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.  
Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.  
Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.  
Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.  
Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.  
Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.  
Que se sigan hablando de los temas que se han tratado.


**Pregunta 5**

**Kontuan hartu beharreko zerbait? ordutegia, espazioa, kontziliazioak, edukia, dinamikak...**

**¿Algo a tener en cuenta? horario, espacio, conciliaciones, contenido, dinámicas...**

En principio, no  
La primera sesión fue muy interesante y relevante, pero me gustaría saber más sobre ello.

## Bigarren topaketaren ekarpenak



## Parte-hartzea

Prozesuari jarraipena emateko eta e-kin-en parte izan diren eta izan litezkeen ikuspuntu desberdinez hornitzen jarraitzeko, pertsona horien inplikazioa eta parte-hartzea funtsezkoa da. Saretze espazioek elkarrekintzarako eta konpromezurako zenbait maila ezartzen dituzte; proiektuaren parte izatea erraza izan dadin.

Bizi-erritmoek eta kontziliazioak, besteak beste, proiektu berrietan inplikatzea zaildu arren, e-kin-etik zera proposatzen dugu: komunitate bat diseinatzea eta artikulatzea, geure beharretara moldatzen dena eta guztiontzat bizi-kalitate hobekiak lortzeko borrokatzen duena. Horretarako, gutxieneko egitura, ardura, jarraipena, etab. beharko dugu, komunitatea eragiteko eta proiektua aurrera ateratzeko gai izan gaitezen.

Horregatik, nahi duzuen neurrian e-kin-en parte izatera gonbidatzen zaituztegu berriz ere, guztion artean eraiki beharreko proiektua baita, sortzen diren proposamen eta ideia anitzetara irekita dagoena.

Amaitzeko, zuen parte-hartzea, interesa, esker ona, berotasuna eta maitasuna eskertu nahi dizuegu.



**ESKERRIK ASKO!!!**